

Kalitate politika

BATZ Groupen xedea elkarrekin mundu hobea eraikitzea, mugikortasun-konponbide global, berritzaile eta jasangarrien bidez dela adierazten du. Horretarako, Zuzendaritzak xedea betetzeko behar diren bitartekoak eta baliabideak emateko, hala nola hura lortzeko ezarritako ekimenetan interes-talde guztiak motibatuzko eta inplikatzeko konpromisoa hartzen du.

Horrela, BATZ Group-ek indartu egiten du bere **ikuspegia**, eta **BATZ izateaz harro dauden pertsonen** osatutako **industria-proiektu jasangarri bat** garatzearen aldeko apustua egiten du. Proiektu hori, oro har, **konfiantzazko partner bat** eta **gizartearekin inplikatutako eragile aktibo, garden eta inplikatutako** bat izateagatik aintzatetsiko da, baita **konponbide eraginkorrak, berritzaileak eta ekologikoak** eskeintzen dituen **erakunde arin, konektatu eta kolaboratibo** bat izateagatik ere.

Bere xede estrategikoa betetzeko, BATZ Group-ek honako **helburu** nagusi hauek ezartzen ditu:

- **Erakundearen baitan pertsonen gogobetetzea eta inplikazioa** bultzatzea.
- **Bezeroen baldintzak eta legeria eta araudi** aplikagarria betetzea.
- Gure **bezeroen** zein bestelako **interes-taldeen konfiantza eta gogobetetasuna** indartzea.
- Prozesuen **estandarizazio globala** indartzea, haien aldaketa murrizteko eta **produktibitatea** eta **errentagarritasuna** handitzeko.
- **Etengabeko hobekuntza** sustatzea, kalitatea kudeatzeko sistemaren eraginkortasuna bermatuz.

Politika honen barne komunikazioa egiten da, eta erakunderako interes-talde guztien eskura dago.

Ana Camacho | CEO BATZ Group



Martxoa 2021